



Gazteen katekesia

Jarduera

DESBERDINKERIAREN AURKAKO EPAIKETA



Manos Unidas/Marta Goyeneche

Munduan dauden gaitz guztien erruduna desberdinkeria al da?

Desberdinkeria mota guztiak desagerrarazi behar al ditugu?

Kasu horretan, denok berdinak izatearen alde egin beharko dugu. Baina gauza guzti-guztietan izan behar al gara berdinak? Izaeran, bizimoduan eta pentsamoldean ere bai?

● Helburuak:

1. Desberdinkeriak zer ondorio dituen ikustea eta pertsonen duintasuna nola kaltetzen duen konturatzea.
2. Desberdinkeriaren sorburuak eta ondorioak zuzentzeko gutako bakoitzak zer egin dezakegun pentsatzea.

● Garapena:

Jardueraren nondik norakoak azalduko ditugu, eta, ondoren, eginkizunen arabera taldeak sortuko ditugu. (Ahal dela, bi edo hiru pertsona jarriko ditugu eginkizun bakoitzeko):

1. **Epailea:** taldearen animatzailea izango da. Jarduera zuzentzea izango da nolabait bere eginkizuna: batzuek eta besteek esateko dutena entzutea, epaimahiaren erabakia jasotzea, eta errudun deklaratuak akusatuari (desberdinkeriari) egotzi zaizkion "delituei" dagokien "zigorra" ezartzea.

- 2. Fiskalak:** akusatuari leporatzen zaizkion "karguak" jakinaraziko dizkiote, lekukoak aukeratuko dituzte, eta lekukoei galdera egokiak egingo dizkiote. Horretarako, sakonki aztertu beharko dituzte aurkeztuko dituzten probak
- 3. Auzi-jartzaileen eta auzipetuen defendatzaileak:** saiatu beharko dute epaimahaikideei erakusten haien bezeroa ez dela leporatzen zaizkion gauza guztien erruduna. Desberdintasuna, berez, ez da txarra: guztiok gara desberdinak; iritzi, gustu eta zaletasun desberdinak dauzkagu. Kontua da pertsona batzuek, onurak edo etekinak lortzeko asmoz, manipulatu egiten dituztela desberdintasun horiek.
- 4. Epaimahaikideak:** epaiketan zehar esaten diren gauza garrantzitsu guztiak gogoan izan beharko dituzte. Aurkeztu zaizkien probetan eta lekukoen adierazpenetan oinarrituz, aho batez erabaki beharko dute desberdinkeria leporatu zaion delituetako bakoitzaren erruduna edo errugabea den, eta azaldu beharko dute zergatik hartu duten erabaki hori, zertan oinarritu diren
- ▶ Fiskalek eta defendatzaileek **lekukoak** ekarri ahal izango dituzte. Lekukoak taldeko beste pertsona batzuk izan ahalko dira, edo pertsona ezagun batzuk, eta beren esperientzia edo lekukotza kontatzeko eskatuko diegu..
 - ▶ Fiskalek eta defendatzaileek edozein **proba** ekarri ahal izango dute (txostenak, albisteak, estatistikak, bideoak...). Betiere, iturri egokietatik ateratakoak izan behar dira proba horiek (aldizkariak, erakundeak, elkarteak, gobernuz kanpoko erakundeak, Ebanjelioa, Elizaren Doktrina Soziala...). Epaiak erabakiko du proba, lekukotza edo lekukoa onartu edo ez onartu, helburuetatik gehiegi ez urruntzeko
 - ▶ Taldeak **desberdinkeria biziaren bizpahiru ondorio (delitu)** aukeratu beharko ditu: desberdinkeria hezkuntzan, osasungintzan, lanean, elikagaiak eskuratzeko orduan, etxibitza duina izateko, ura eskuratzeko eta abar.
 - ▶ Zalantza guztiak argitu ondoren, epaiketa egiteko egun bat finkatu. Behar beste denbora utzi, bakoitzak bere aurkezpena prestatu ahal izateko.
 - ▶ Epaiketa egin ahal izango da aurrez aurre, baliabide telematikoen bidez edo bi moduak uztartuz.
 - ▶ Bukatzeko, taldeak idatziz jasoko ditu epaiketan ikusitakoaren **ondorioak**. Taldeko kide bakoitzak ikusi behar du epaiketan zehar ikusitako desberdinkeria-egoeraren batekin zerikusia duen, eta hori aldatzeko zerbait egin nahi duen pentsatu beharko du.
 - ▶ Garrantzitsua da gure inguruko egoerak aukeratzeko: familia, lagunak, ikastetxea, parrokia, auzoa... Eta ez ditugu ahaztu behar irismen handiagoa daukaten beste ekimen, elkarte edo GKE batzuk.

Garrantzitsua da taldeari ikusaraztea gure ekintzen motorra Jesusen Espiritua dela, eta gure gasolina, berriz, otoiaren eta sakramentuen indarra dela.

**DESBERDINKERIA EZABATU AHAL IZATEKO,
EKINTZA ZEHATZ BAT BETETZEKO ARDURA HARTU BEHAR DA.**